

SAILBURUA
LA CONSEJERA**AGINDUA, 2018KO MARTXOAREN 7KOA, LAN ETA JUSTIZIAKO
SAILBURUARENA, ZEINAREN BIDEZ ALDATZEN BAITA
2018KO OTSAILAREN 27KO AGINDUA, ZEINAREN BIDEZ BERMATZEN BAITA
2018KO MARTXOAREN 8RAKO DEITUTAKO GREBA OROKORRAK DIRAUE
BITARTEAN GIZARTEARI EMAN BEHAR ZAIZKION EZINBESTEKO ZERBITZUAK
BETEKO DIRELA.**

Lan eta Justiziako sailburuak, 2018ko otsailaren 27an, Agindu bat eman zuen, 2018ko martxoaren 8rako deitutako greba orokorrek dirauen bitartean gizarteari eman behar zaizkion ezinbesteko zerbitzuak beteko direla bermatzeko.

ELA eta LAB erakunde sindikalek Agindu hori errekurritu egin dute, oinarrizko eskubideak babesteko prozedura bereziaren bidez, eta aipatutako 2018ko otsailaren 27ko Agindu horren hainbat xedapen kautelaz eteteko eskatu dute.

Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak, 2018ko martxoaren 7ko Auto baten bidez, errekurritutako Aginduaren kautelazko tutoretza partzialki onestea erabaki du, Agindu horren xedapen-zatiko Laugarren erabakiari dagokionez (Gizarte Zerbitzuak). Ildo horretan, a) idatz-zatiko lehen paragrafoan finkatutako % 70eko portzentajea kendu eta % 50ekoa jarri da; aipatutako paragrafo hori berdin gelditu da gainerakoan.

Bestetik, errekurritutako Aginduaren a) idatz-zatiko bigarren paragrafoko Laugarren erabakiari dagokionez, finkatutako % 80ko portzentajea kendu eta % 70ekoa jarri da; aipatutako paragrafo hori berdin gelditu da gainerakoan.

Aipatutako Autoan erabakitakoa gauzatze aldera, 2018ko otsailaren 27ko Agindua aldatzen duen Agindu hau ematen da.

Azaldutakoagatik, Lan eta Justiziako sailburuak, Gobernua eskuordetuz, honako hau

**EBAZTEN DU:****LEHENENGOA.-**

- a) 2018ko otsailaren 27ko Aginduaren xedapen-zatiko Laugarren erabakian,
 - a) idatz-zatiko lehen paragrafoan, % 70eko portzentajea kendu eta % 50ekoa jarri da; aipatutako paragrafo hori berdin gelditu da gainerakoan.
- b) 2018ko otsailaren 27ko Aginduaren xedapen-zatiko Laugarren erabakian,
 - a) idatz-zatiko bigarren paragrafoan, % 80ko portzentajea kendu eta % 70ekoa jarri da; aipatutako paragrafo hori berdin gelditu da gainerakoan.

BIGARRENA.- Jakinarazten denean jarriko da indarrean Agindu hau.

HIRUGARRENA.- Agindu honen berri eman behar zaie interesdunei, eta haren aurka aukerako berraztertze-errekurtsoa jar daitekeela adieraz behar zaie, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita hilabeteko epean. Edonola ere, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahalko da Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita bi hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteizen, 2018ko martxoaren 7an



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

LAN ETA JUSTIZIA-
DEPARTAMENTO DE TRABAJO
Y JUSTICIA
MARIA JESÚS CARMEN SAN JOSÉ LOPEZ
LAN ETA JUSTIZIAKO SAILBURUA